

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Azagran Udaltzaingoa sortzea baimendu du Nafarroako Gobernuak

Herriko udaletxeak batzarrean osotasunez harturiko eskaerari erantzuna eman zaio

Asteazkena, 2018.eko urriak 24

Lehendakaritza, Funtzio Publikoa, Barne eta Justizia Departamentuak proposatuta, gaurko ohiko bilkuran Azagrako udaletxeak osotasunez herrian Udaltzaingoa sortzeko eskaerari erantzunez, Azagran Udaltzaingoa sortzea onetsi du Nafarroako Gobernuak.

Nafarroako Polizien martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legeak 17. artikuluan zehazten duenez 7.000 biztanle edo gehiago dituzten herriek beraien Udaltzaingo taldea sortzeko aukera izango dute eta herritarren segurtasunak hala eskatzen duenean, biztanle kopuru hori ez duten herrietan Udaltzaingo taldea sortzea baimendu dezake Nafarroako Gobernuak.

Azagrako Udaletxeak behar hau arrazoitzeko emandako zioen artean, herriak 3.000 biztanle baino gehiago dituela, 3.860 zehazki, 33,71kmko zabalera duela eta hazten ari den elikagai, ardo eta konserben industriak eraginda aldizkako biztanleko kopuruen gorakadak dituela azaldu du.

Gainera, duen kokapen geografikoa dela eta ez da erraza beste polizien arteko koordinazioa gauzatzea eta horrek gertuko herriekin alderatuz egoerak konpontzeko denbora gehiago behar izatea ondorioztatzen du.

Horregatik guztiatik Azagrak egun dituen munizipalak, 3 dira, gaitasun gehiago eta modu progresiboan lantaldea handitzeko asmoa du udalak. Lehen pausua Nafarroako Gobernuak gaur goizean emandako baimenarekin gauzatu da.